

Diskoen eta liburuen argitalpenerako laguntzen oinarriak

2026

SGAE FUNDAZIOAren Plan Zuzentzailea betetzeko, dagoeneko ekoitzita eta argitaratuta dauden SGAE autoreen diskoen eta liburuen banaketa faserako laguntza hauen deialdia egiten da.

Laguntza horien babespean egon daitezkeen gastuak disko baten (fabrikazioa, sustapena, merkaturatzea, plataforma digitaletan posizionatzea, libretoaren argitalpena, etab.) edo liburu baten (inpresioa, sustapena, merkaturatzea, plataforma digitaletan posizionatzea, etab.) banaketari dagozkionak baino ez dira izango. Ez da inolaz ere onartuko ekoizpen- edo idazketa-gasturik.

LEHENENGOA: ESKATZAILEAK

SGAE Fundazioak hauek aurkeztutako laguntza-eskaerak aztertuko ditu:

Diskoetarako:

- Euren autoretzako obrekin osatutako disko berri bat autoargitaratzera doazen SGAEko autore bazkideak. Kasu horretan, ekoizle fonografiko lanak egiten dituen autoreak autonomo gisa behar bezala alta emanda egon beharko du, eta zerga- eta kotizazio-betebeharrak ordainduta.
- Euren autoretzako obrekin osatutako disko berri baterako zigilu diskografiko batekin kontratua sinatuko duten SGAEko bazkide diren autoreak.
- Euren xede sozialean produktore diskografikoaren edo/eta banaketa fonografikoaren jardura duten pertsona juridikoak (merkataritza-sozietateak, fundazioak edo/eta elkarteak). Eskabidearekin batera doan proiektua SGAEko kide diren autoreen erreperitorioa duen disko bat banatzeko baldin bada aurkeztu ahal izango dira.

Nolanahi ere, laguntzaren eskatzaileak aurkeztutako diskoan jasotako obren % 50a, gutxienez, ez da aurrez euskarri komertzialetan grabatuta egongo. Euskarrian sartutako obrak edozein genero edo adierazpen musikalekoak izan daitezke.

Era berean, laguntza eskatzen duenak egiaztatu beharko du euskarri fonografikoaren ustiapen eskubideen % 100aren titulartasuna duela eskaera egiteko unean, eta, gutxienez, 2027ko abenduaren 31ra arte.

Liburuetarako:

- Euren autoretzako liburu bat autoargitaratzen duten SGAEko bazkide diren autoreak. Kasu horretan, liburuak argitaratzen dituen autoreak behar bezala alta emanda egon beharko du argitaratzaile autonomo gisa, eta zerga- eta kotizazio-betebeharrak ordainduta.
- Argitaratzaile batekin bere lana argitaratzeko edizio-kontratua sinatuko duen SGAEko kide den autorea.
- Helburu soziala liburuak argitaratzea duten eta SGAEko kide diren autoreen erreperitorioa zabaltzen lagunduko duen liburu bat banatzea helburu duen proiektu bat aurkeztu duten pertsona juridikoak (merkataritza-sozietateak, elkarteak edo/eta fundazioak).

Kasu guztietan, laguntzara aurkeztu den lanak ez du argitaratuta egon beharko aurreko edizio komertzialetan.

Era berean, laguntza eskatzen duenak egiaztatu beharko du liburuaren argitalpenaren ustiapen eskubideen % 100aren titulartasuna duela eskaera egiten den unean, eta, gutxienez, 2027ko abenduaren 31ra arte.

Eskatzaile guztiek kontuan hartu beharreko gai komunak:

SGAE Fundazioak eskainitako laguntza guztietatik, inork ezin izango du ekitaldi berean laguntza bat baino gehiago jaso, diskoak eta liburuak argitaratzeko laguntzarekin bateragarriak diren “*Nazioarteko sustapenerako bidaietarako laguntzak*” izan ezik.

Berezko nortasun juridikoa duten erakundeek laguntza bat baino gehiago jaso ahal izango dute deialdi honetan, betiere SGAEko hainbat bazkideren proiektuetarako bada.

Laguntza ezin izango da erabili SGAEri autore-eskubideak ordaintzeko.

Ez da onartuko SGAErekin ordainketak egunean ez dituzten ekoizle fonografikoen eta argitaratzaileen eskaerarik.

Laguntza hauen ondorioetarako, SGAE erreperitorioa SGAEko kide diren autoreek sortutako obrak dira.

BIGARRENA: PROIEKTUEN TIPOLOGIA

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute:

- Ekoizpen fasea amaituta duten eta 2025eko abuztuaren 2tik 2027ko abenduaren 31ra bitartean banatzen diren proiektu diskografikoak. Laguntza honetarako gastu konputagarriak diskoaren banaketari dagozkionak baino ez dira izango. Fonograman sartutako erreperitorioa SGAEko kide diren autoreena izan behar da.

Proiektu diskografikoaren deskribapena eta kronograma bat aurkeztu beharko dira, laguntza honen babespean egon daitezkeen gastuen aurrekontu xehatuarekin batera: fabrikazioa, sustapena, merkaturatzea eta plataforma digitaletan posizionatzea eta libretoaren argitalpena. Aurrekontu xehatu horrekin batera, zerbitzuen hornitzaileek eskatzaileari aurrekontua egiteko aurkeztu dizkioten aurrekontuak aurkeztu beharko dira. Era berean, fonogramaren banaketa ziurtatzen duten kontratuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira. Fonograma formatu digitaletan bakarrik bidali beharko da, formularioan dokumentu gehigarri gisa edo e-mailez.

- Idazketa fasea amaituta duten eta 2025eko abuztuaren 2tik 2027ko abenduaren 31ra bitartean banatzen diren argitalpen-proiektuak. Laguntza honetarako gastu konputagarriak liburuaren banaketa gastuak baino ez dira izango. Liburuak, SGAEren autore baten obra bat argitaratu behar du (gidoiak, obra dramatikoak, abestien letrak, etab.), edo SGAEren autore baten edo autore-multzo baten lanaren hedapena sustatu behar du, edo SGAEren autoreek euren lana gauzatzen duten sormen-esparrua aztertu behar du.

Liburuaren deskribapena aurkeztu beharko da, banaketa daten kronogramarekin batera, laguntza honen babespean egon daitezkeen gastuen aurrekontu banakatuarekin batera: fabrikazioa, sustapena, merkaturatzea eta plataforma digitaletan posizionatzea. Aurrekontu xehatu horrekin batera, zerbitzu-hornitzaileek eskatzaileari hori egiteko aurkeztu dizkioten aurrekontuak aurkeztu beharko dira. Halaber, liburuaren banaketa ziurtatzen duten kontratuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira. Liburuaren testua formatu digitaletan bakarrik bidali beharko da, formularioan dokumentu gehigarri gisa edo e-mailez.

HIRUGARRENA: SGAE FUNDAZIOAREN EKARPENA

Hautatutako proiektu bakoitzari gehienez ere 2.000 € esleitu ahal izango zaizkio (zergak barne).

Ordainketa zortzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera egingo da, dagokion hitzarmena sinatu eta Zuzenbidean onartutako kobrantza-dokumentua, indarrean dagoen araudia betetzen duena, SGAE Fundazioari aurkeztu ondoren. Dagozkion PFEZ atxikipenak indarrean dagoen zerga-legeriaren arabera aplikatuko dira.

LAUGARRENA: AGIRIAK

Eskaerekin batera honako agiri hauek egon beharko dira:

1. Behar bezala betetako eskabide-orria.
2. Pertsona juridikoek hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:
 - a. IFKren txartelaren kopia.
 - b. Pertsona juridikoaren (merkataritza-sozietatea, elkarte edo fundazioa) eratze-eskriuraren kopia baimendua, dagokion erregistroan behar bezala inskribatua (Merkataritza Erregistroa, Elkarteen Erregistroa edo Fundazioen Erregistroa).
 - c. Indarrean dagoen administrazio-organoaren eskriuraren kopia baimendua, merkataritza-sozietateen kasuan.
 - d. Elkarteen eta fundazioen kasuan:
 - i. Elkarteen edo fundazioaren indarreko estatutuak
 - ii. Elkarteen Erregistroaren edo Fundazioen Erregistroaren ziurtagiria, 2026an egina, indarrean dagoen erakundearen legezko ordezkaria egiaztatzen duena.
3. Hirugarren batekin diskoa edo liburua argitaratzeko akordioa lortu behar duten autoreen kasuan, kontratu diskografikoaren edo argitalpen-kontratuaren kopia aurkeztu beharko dute, dagokionaren arabera. Eskaeraren datan kontratua sinatu gabe badago, asmo-gutun bat aurkeztu beharko dute, liburuaren ekoizle fonografikoak edo argitaratzaileak sinatua, dagokionaren arabera. Nolanahi ere, laguntza ematen bazaie, sinatutako kontratuaren kopia entregatu beharko diote SGAE Fundazioari 2027ko abenduaren 31 baino lehen. Hala egin ezean, laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute.
4. Lanen autorearen CVa.
5. Laguntzaren xede den proiektuaren deskribapena eta kronograma.
6. Laguntza honen babespean egon daitezkeen gastuen aurrekontu xehatua, eskatzaileari zerbitzuak ematen dizkioten hornitzaileen aurrekontuekin batera.
7. Beste erakunde batzuen lankidetzaren ziurtagiria, hala badagokio.
8. Obren autorearen edo haren oinordekoen babes-gutuna, hilda egonez gero, eskatzailea sortzailea ez denean.
9. Laguntza eskatzen den diskoan sartzen diren obrak SGAEren autoreenak direla dioen zinpeko aitorpena. Adierazpenarekin batera, SGAEren webgunean "Online erreperitorioa" atalean (<https://enlinea.sgae.es/RepertorioOnline>) eskura daitezkeen SGAEko obren erregistro-fitxak erantsikodira. Euren lanak autoargitaratzen dituzten eta lan horiek SGAEen erregistratzeko prozesuan dauden autoreen kasuan, SGAEen aurkeztutako aitorpenaren kopia aurkeztu beharko dute erregistratzeko.

10. Diskoa edo liburua formatu digitalean, formularioko dokumentazio osagarri gisa edo ayudas@fundacionsgae.org helbide elektronikora.
11. Eskatzaileen baimena SGAE Fundazioak euren datu pertsonalak erabil ditzan deialdi honen esparruan. Eskatzaileak pertsona juridikoak badira, ordezkaten dituzten autoreen baimena aurkeztu beharko dute, deialdi honen esparruan SGAE Fundazioak euren datu pertsonalak erabili ahalizan ditzan. Aurkeztu beharreko baimen-eredua SGAE Fundazioaren webgunean dago eskuragarri, laguntza honen deialdiaren atalean.

BOSGARRENA: EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

Jasotako proiektuak ebaluatzeko, alderdi hauek baloratuko dira bereziki:

1. Autoretzak gizarte osoarekin duen harremana erraztea, autore-eskubideari buruzko gizarte-pedagogia sustatzea eta kulturarako sarbidea bultzatzea.
2. Arte-adierazpen berriak eta diziplina anitzeko proiektuak sustatzea.
3. Beste instituzio eta erakunde batzuekiko lankidetzeta.
4. Emakumezko autoreen parte-hartzea sustatzea.

Gainera, kontuan hartuko da aurkeztutako aurrekontuekin bat datorren proiektuaren bideragarritasuna, proiektuak izan dezakeen eragin soziokulturala eta, hala badagokio, laguntza horiek emandako baliabideen aplikazioan izan dezakeen eraginkortasuna.

SEIGARRENA: ESKABIDEEN AURKEZPENA ETA EPEA

1. Eskabide-orria SGAE Fundazioaren webgunean dago eskuragarri: www.fundacionsgae.org. Inprimakiaren formatu elektronikoa erabili beharko da, eta nahitaezko eremu guztiak bete beharko dira. SGAE Fundazioak eskaera guztiak jaso dituela adieraziko du, eta falta diren agiriak aurkezten ez dituztenei jakinaraziko die. Dokumentazioa falta dela adierazten zaion eskatzaileak gehienez 15 egun naturaleko epea izango du akatsak zuzentzeko, SGAE Fundazioaren jakinarazpenaren egunetik zenbatzen hasita. Epe barruan zuzentzen ez badira, eskaera ezetsi egingo da.
2. Diskoak eta liburuak argitaratzeko laguntza eskaerak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 12an hasiko da, asteartea, eta 2026ko uztailaren 31ko 23:59 arte egongo da zabalik, ostirala. Epez kanpo jasotako eskaerak ez dira kontuan hartuko.

ZAZPIGARRENA: ESKAEREN EBAZPENA ETA PROZEDURA

1. Ebaluazio-batzorde bat arduratuko da oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskabideak aztertzeaz.
2. Batzordeak erabakiko du laguntzak ematea, eta ebazpena interesdun guztiei jakinaraziko zaie, idatziz.
3. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

ZORTZIGARRENA: LANKIDETZAREN GAUZAPENA

SGAE Fundazioak eta proiektua onartu zaion eskatzaileak lankidetzaren hitzarmen espezifiko bat sinatuko dute. Hitzarmen horretan, nahitaez, dokumentu honetan ezarritako oinarriak eta jarraian zerrendatzen dugun informazioa jaso beharko dira, azalpen gisa:

1. Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
2. Proiektuaren hasierako eta amaierako epea.
3. Esleitutako laguntzaren zenbatekoa.
4. Ordaintzeko modua.
5. Proiektuaren (txostena, ebaluazioa, SGAE Fundazioaren irudi korporatiboa eta amaierako memoria barne hartzen dituen materiala) jarraipena. Azken memoriak hauek jaso behar ditu: banaketarako egindako ekintzen zerrenda, kostuaren banakapena (emandako laguntzaren zenbatekoaren arabera) eta laguntzaren xedea egiaztatzen duten ordainagirien eta fakturen kopia.
6. Laguntza honi esker banatutako fonograma SGAE enregistraztearen berri SGAE Fundazioari emateko konpromisoa. Banaketa fisikoaren kasuan, Erreproduzio Mekanikoko sailak euskarri fisikoa fabrikatzeagatik eta banatzeagatik autore-eskubide gisa egindako faktura eta aipatutako baimena ordaindu ondoren sail horrek emandako lizentzia erantsi behar dira. Banaketa digitala bada, legezko plataforma digitaletan egin dela frogatu beharko da.

SGAE Fundazioak hitzarmena formalizatzeko behar den dokumentazioa eskatuko dio laguntzaren onuradunari. Dokumentazio hori helarazteko gehieneko epea bi (2) hilabete izango da, SGAE Fundazioak hori eskatzen duenetik. Hautatuak ez badu dokumentazioa epe horretan entregatzen, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du. Dokumentu guztiak aldean artean sinatuko den hitzarmenaren atal bereizezina izango dira, eta ez dira itzuliko.

Halaber, SGAE Fundazioak sinatu beharreko hitzarmena helaraziko die laguntzaren onuradunei. Laguntzaren onuradunak gehienez ere bi (2) hilabeteko epea izango du hitzarmenaren aleak sinatuta itzultzeko, ordainketa-agiriarekin batera, laguntza kobratu ahal izateko. Hitzarmena edo ordaintzeko agiria epe horretan ez entregatzeak laguntza galtzea ekarriko dio onuradunari.

BEDERATZIGARRENA: DATU PERTSONALEN BABESA

Laguntza-eskatzaileek beren borondatez emandako datu pertsonalak SGAE Fundazioa arduradun izango den fitxategi batean sartuko dira. Datuok laguntza-deialdi honetan duten parte-hartzea kudeatzeko baino ez dira erabiliko. Datu pertsonalen babeserako oinarriko eskubidearen titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, erabilera mugatzeko, beste norabait eramateko eta horien aurka egiteko, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko ere. Horiek erabiltzeko helbide honetara idatz dezake: SGAE Fundazioa, zerbitzu juridikoen arreta, Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril. Idazkiak izena, abizena eta baliatutako eskubidea adierazi beharko ditu, eta NAN/AIZ edo pasaportearen kopiarekin batera aurkeztu beharko da. SGAE Fundazioak ontzat ematen du datuaren titularrak emandako datuak egiazkoak direla eta egungo egoerari erantzuten diotela. Eragindakoak aldaketa gertatzen den unetik bertatik jakinarazi beharko du.

HAMARGARRENA: ARAU OROKORRAK

1. Laguntzaren onuradunak SGAE Fundazioaren logotipoa eta “SGAE Fundazioaren laguntzarekin” legenda sartuko ditu argitaratutako diskoaren edo liburuaren karatulan, bai eta egiten diren sustapen-ekintza guztietan ere (iragarkiak, kartelak, katalogoak, liburuxkak eta antzekoak), baldin eta ekintza horien data laguntza hauen ebazpenaren data baino geroagokoa bada.

2. Eskabidea aurkezteak berekin dakar Oinarri hauek onartzea eta baimena ematea SGAE Fundazioari bere Memorietan eta gainerako argitalpenetan emandako laguntzari buruzko informazioa zabaltzeko.
3. SGAE Fundazioa erabat salbuetsita dago eskatzaileak bere proiektua gauzatzeagatik eta garatzeagatik indarrean dagoen legeria urratzetik eratorritako edozein erantzukizunetik.
4. SGAE Fundazioak ontzat ematen du laguntza-deialdi honetan ematen zaizkion datu eta informazio guztiak egiazkoak direla eta errealitatearekin bat datozela. Edozein unetan egiaztatzen bada emandako daturen bat edo informazioaren bat ez dela zehatza edo egiazkoa, eskaera ezetsi egingo da, eta laguntza jada eman bada, onuradunak zenbatekoa itzuli beharko du, dagoeneko ordaindu bada, edo kobratzeko eskubidea galduko du, oraindik ordaindu gabe badago.

Informazio gehiago: ayudas@fundacionsgae.org